

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA DESJABETZEA, ELKARTE, BALLARIAIN, BERRIOGOITI ETA BERRIOBEITIKO SANEAMENDUA

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak, 2021eko abenduaren 23an egin zuen saioan, akordio hau hitzartu zuen:

“SM286979 Elkarte, Ballariain, Berriogoiti eta Berriobeitiko saneamendua” lanaren xedea da Elkarteko, Ballariaingo, Berriogoitiko eta Berriobeitiko saneamendua gauzatzeko beharrezkoak diren obren definizio eta balorazio osoa egitea, arroko herri desberdinen isurketak jasoko dituen kolektore bat eraikita, ondoren hondakin-uren isurketak Arazuriko HUAn tratatu eta arazteko aurretiko eta beharrezko pauso moduan.

Era berean, Berriobeitiko industrialdeko hondakin-uren isurketa ere jaso nahi da, orain arte arazketa partikular baten bidez isurtzeko aukera baino ez baitute izan, kolektorerik ez izatean hurbil.

Azkenik, eta kolektorea egin ondoren, egungo hobi septikoak eraitsiko dira.

2021eko abuztuaren 31n, SCPSAren Administrazio Kontseiluak “SM286979 Elkarte, Ballariain, Berriogoiti eta Berriobeitiko saneamendua” proiektua onartu zuen. Administrazioari jakinarazteko aurrekontu zenbatetsia 2.407.820,24 euro da (%21eko BEZa barne).

Kontuan hartuta, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 10. artikulua eta Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 215.2 artikulua arabera, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak obren planei eta tokiko zerbitzuei dagozkien obren proiektuak onartu behar dituela, izan ere, onartzeak inplizitu baitakar erabilera publikokotzat deklaratzeko eta haietan jasotako ondasunak okupatu behar izatea, nahitaezko desjabetzearen eraginetarako.

Obra horiek egiteko beharrezkoak diren lursailak desjabetzea beharrezkoa izanik, eta aintzat hartuta, Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 47.4 eta 29. artikuluen, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.d) artikulua eta Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuen 4. artikulua arabera, erakunde honek desjabetze-ahalmena gauzatu ahal duela, egokia da desjabetzeko espedientea hastea.

Batzar Nagusiak 2021eko urriaren 21ean egin zuen saioan, nahitaezko desjabetzearen espedienteak izapidetzeko Batzar Nagusiaren eskuduntzak Batzorde Iraunkorraren esku uztea onartu zen. Horrenbestez:

HITZARTU DA:

1. “SM286979 Elkarte, Ballariain, Berriogoiti eta Berriobeitiko saneamendua” obraren proiektua onartzea, desjabetzeko espedientea hastea eta proiektu horrek ukitzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda hasiera batean onartzea. Onuraduna “Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.” izango da.
2. Proiektuak ukitutako ondasunen eta eskubideen onura publikoa eta okupatu beharra aitortzea eta deklaratzeko, onarpenari lotuta baitaude.
3. Proiektua eta ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean edukitzea hamabost egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean kaleratzen denetik aurrera zenbatuta, beren burua ukitutzat dutenek denbora horretan egokiak iruditzen zaizkien ohar edo alegazio guztiak eta argitaratutako zerrendako okerrak zuzentzeko behar diren datuak ekar ditzaten, idatziz. Idatzia, ahal izanez gero, telematikoki bidali ahal izango dute (<https://sedeelectronica.mcp.es/>), Iruñerriko Mankomunitatearen egoitzara (Chinchilla Jeneralaren kalea, 7, 31002, Iruña, Nafarroa) edo Berriobeitiko udaletxera. Egoitza horietan, hain zuzen, proiektuaren eta lursail-planoen kopia bat edukiko dute eskura.

4. Akordio hau kaleratzea, ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin batera, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Foru Komunitateko egunkari batean, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Berriobeitiko udaletxeko iragarki-oholetan.
5. Ebazpen hau ukituei jakinaraztea, erabaki hau inpugnatzerik ez dagoela ohartaraziz, administrazio-bidea amaitzen ez duen tramiteko egintza baita.

Iruñean, 2021eko abenduaren 27an. Lehendakaria, David Campión Ventura.

UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA
SM286979 Elkarte, Ballariain, Berrigoiti eta Berriobeitiko saneamendua

	JABEAREN DATUAK	UKIPENAK					KATASTROKO DATUAK			
		AKUEDUKTU ZORTASUNA M.L.	ZORTASUN EZARPENA M²	OKUPAZIOA ERREGISTROAK mota	OKUPAZIOA ERREGISTROAK zenbakiak	BEHIN-BEHINEKO OKUPAZIOAK M²	UDALERRIA	POLIGONO ZK.	LURZATI ZK.	LURRAREN ERABILERA
BE-14	ERDOCIA ARRUABARRENA PETRA ISABEL	129,93	780	T2	2	2.213,40	BERRIOBEITI	14	209	LEHORREKO ALORRA
BE-19	LECUMBERRI DONAZAR JOSE MARIA LECUMBERRI DONAZAR MARIA SAGRARIO LECUMBERRI ESLAVA MARIA ANGELES LECUMBERRI ESLAVA MARIA JOSE LECUMBERRI ESLAVA JESUS MARIA LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALIA	21,69	130		0	479,47	BERRIOBEITI	13	413	LEHORREKO ALORRA
BE-25	LECUMBERRI DONAZAR JOSE MARIA LECUMBERRI DONAZAR MARIA SAGRARIO LECUMBERRI ESLAVA MARIA ANGELES LECUMBERRI ESLAVA MARIA JOSE LECUMBERRI ESLAVA JESUS MARIA LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALIA	6,5	39	T2	1	147,41	BERRIOBEITI	13	396	LEHORREKO ALORRA
BE-32	LECUMBERRI DONAZAR JOSE MARIA LECUMBERRI DONAZAR MARIA SAGRARIO LECUMBERRI ESLAVA MARIA ANGELES LECUMBERRI ESLAVA MARIA JOSE LECUMBERRI ESLAVA JESUS MARIA LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALIA	0	0		0	200,12	BERRIOBEITI	13	398	LEHORREKO ALORRA
BE-38	ANDRESA BEPERET IRIBARREN	28,9	173		0	508,46	BERRIOBEITI	13	311	LEHORREKO ALORRA
BE-40	LECUMBERRI DONAZAR JOSE MARIA LECUMBERRI DONAZAR MARIA SAGRARIO LECUMBERRI ESLAVA MARIA ANGELES LECUMBERRI ESLAVA MARIA JOSE LECUMBERRI ESLAVA JESUS MARIA LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALIA	35,5	213	T2	1	710,00	BERRIOBEITI	13	309	LEHORREKO ALORRA
BE-46	GOÑI OROZ MARIA EUGENIA GOÑI OROZ MARIA SAGRARIO	32,2	193		0	640,21	BERRIOBEITI	13	326	LEHORREKO ALORRA

BE-63	ANDRESA BEPERET IRIBARREN	39,21	235		0	769,72	BERRIOBEITI	13	353	LEHORREKO ALORRA
BE-66	GOÑI OROZ MARIA EUGENIA GOÑI OROZ MARIA SAGRARIO	88,24	529	T2	2	1.775,18	BERRIOBEITI	13	371	LEHORREKO ALORRA
BE-76	LECUMBERRI DONAZAR JOSE MARIA LECUMBERRI DONAZAR MARIA SAGRARIO LECUMBERRI ESLAVA MARIA ANGELES LECUMBERRI ESLAVA MARIA JOSE LECUMBERRI ESLAVA JESUS MARIA LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALIA	0	0		0	4.364,00	BERRIOBEITI	13	563	LEHORREKO ALORRA
BE-81	LECUMBERRI DONAZAR JOSE MARIA LECUMBERRI DONAZAR MARIA SAGRARIO LECUMBERRI ESLAVA MARIA ANGELES LECUMBERRI ESLAVA MARIA JOSE LECUMBERRI ESLAVA JESUS MARIA LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALIA	0	0		0	129,20	BERRIOBEITI	13	607	LEHORREKO ALORRA
BE-82	LECUMBERRI DONAZAR JOSE MARIA LECUMBERRI DONAZAR MARIA SAGRARIO LECUMBERRI ESLAVA MARIA ANGELES LECUMBERRI ESLAVA MARIA JOSE LECUMBERRI ESLAVA JESUS MARIA LECUMBERRI ESLAVA PABLO LECUMBERRI ESLAVA ROSALIA	120,16	721	T3	2	2.028,32	BERRIOBEITI	13	609	LEHORREKO ALORRA
BE-94	JOAQUIN GARCIA RAMIREZ-LAPISCINA	90,88	545	T2	1	1.809,96	BERRIOBEITI	13	659	LEHORREKO ALORRA